

ERABAKIA, 2025EKO URRIAREN 30EKOA, TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDEARENA, EPE LUZEKO EGONALDIETARAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMEN 2026/2027 DEIALDIA ARGITARATZEKO (ERASMUS+, LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK), EUSKAL HERRIKO UNIVERSITATEKO (EHU) TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETZAK KUDEATUA, GRADUKO ETA 90 ETA 120 ECTS KREDITUKO MASTERRETAKO IKASLEEI ZUZENDUA

Nazioarteko mugikortasunerako programen helburua da unibertsitateko ikasleen mugikortasunerako eskubidea bultzatzea, edozein mailatan daudela ere.

Horretarako, unibertsitateak dei egiten die graduatan eta 90 eta 120 ECTS kredituko masterretan ari diren ikasleei nazioarteko mugikortasunerako plazetara aurkez daitezen. Plaza horiek esleitzeko aplikatuko da [EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#), EHUren Gobernu Kontseiluaren 2017ko irailaren 28ko ERABAKIAren bidez onartua, baita ondoren azaldutako arau espezifiko hauek ere. Hori guztia dela eta, honako oinarri hauek **EZARRI** ditut:

OINARRIAK

1.- HELBURUA	1
2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.....	2
3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK	3
4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA	4
5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK	4
6.- ESKAERAK ZUZENDU EDO OSATZEA.....	5
7.- PROZEDURA	5
8.- SEPIEren DIRULAGUNTZAK ERASMUS+ PROGRAMAN	6
9.- MUGIKORTASUNEN IKASLEEN BETEBEHARRAK (ERASMUS+, LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK)	11
10.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA.....	18

1.- HELBURUA

Deialdi honen xedea da ikasleak hautatzea EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak kudeatzen dituen nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzeko **2026/2027** ikasturtean. Ikasleok graduko eta 90 edo 120 ECTS kredituko masterretakoak izan behar dira.

Honako hauek dira programak:

Erasmus+ programa, Latinoamerika programa (LA), eta Beste Norako Batzuk programa (BNB).

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Ikasleak Europar Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean izan beharko da errefuxiatua, herrigabea, egoiliar iraunkorra, edo aldi baterako egoiliarra (mugikortasunak dirauen artean herrialde horretan egoteko edo bizitzeko baimena daukana), izaera hori kasuan kasuko herrialdeko legeriaren arabera aitortua izanik.

[EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#)ri jarraituz, ezin izango dute deialdian parte hartu kanpotik datozen ikasleek, halakotzat hartzen direlarik arautegiko 3.9 eta 8.4 artikuluetan zehazten direnak.

2.2.- Eskaera egiten duenean ikaslea EHUn matrikulatuta egon beharko da, hauetako batean gutxienez:

- **Graduko bigarren mailan¹**
- **90 edo 120 kredituko master bateko 1. mailan.**

Mugikortasuna egingo duen ikasturtean ere **(2026/2027)** EHUn matrikulatuta egon beharko da ikaslea.

2.3.- Aurretik diplomatura, lizentziatura edo gradu bat izanda beste gradu bateko 1. mailan dauden edo 1. mailako moduluren bat egiteko duten ikasleek titulazio berriko 2. mailara arte itxaron beharko dute programa hauetan eskaera aurkezteko.

2.4.- Ikasleak **maila nahikoa** izan beharko du irakasgaiak emango diren **hizkuntzan, atzerriko erakundeak jarritako eskakizunen arabera.**

Eskatzen den hizkuntza mailaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ikastegian bertan esleitzen diren Erasmus+ programako eta Beste Norako Batzuk (BNB) programako plazetarako, ikasleak bere ikastegiko koordinatzaileari bidaliko dio ziurtagiria.

Nazioarteko Harremanen Bulegoak (NHB) esleitzen dituen KUPO OROKORREKO plazetarako, eskatzaileak certiidiomas.internacional@ehu.es helbidera bidaliko du hizkuntza ziurtagiria.

2.5.- Baldintza hauek EHUko ikasle guztiei aplikatuko zaizkie. Bestalde, **ikasleak galdetu behar dio bera matrikulatuta dagoen ikastegiko Nazioarteko Harremanetako koordinatzaileari ea ikastegiak betebeharrak gehiago eskatzen dituen.** Ikastegiaren betebeharrak espezifikoak zorrotzagoak izan daitezke, inoiz ez malguagoak Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzak jarritakoak baino.

¹ Itzulpengintza eta Interpretazio Graduan matrikulatutako ikasleek izan ezik, zeren eta horiek graduko lehenengo mailan egin ahal izango baitute eskabidea.

3. MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

3.1.- Mugikortasunaren iraupena eta bere eduki akademikoa egokitu beharko dira [EHUko Ikasleen Nazioarteko Mugikortasun Programei buruzko Arautegia](#)k eta deialdi honetan ezarritakoaren arabera.

3.2.- Ikasturte bakoitzean mugikortasun bat besterik ezin da egin. **Hala ere**, ikasleak aukera du ikasturte berean ikasketa mugikortasun bat eta praktiketako Erasmus+ mugikortasun bat egiteko.

3.3.- Atzerriko unibertsitatean egin daitekeen **egonaldi luzeena ikasturte batekoa** da.

3.4.- Egonaldiaren iraupena egokitu beharko da EHUK eta atzerriko unibertsitateak sinatutako aldebiko hitzarmenera (KUPO OROKORRA) edo ikastegiaren arteko aldebiko hitzarmenera (IKASTEGI BAKOITZERAKO KUPOA). EHUko ikastegiko mugikortasun programen arduradunek egonaldien iraupena aldatzeko eskatuz gero, Errektoreordetzak kontuan hartuko ditu eskaerok, betiere egokiro justifikatuta baldin badaude, eta betiere indarrean dagoen aldebiko hitzarmen batean oinarritzen badira. Eskaerak behin aztertuta, errektoreordetzak baietza edo ezetza emango die, zuzenbidearen arabera. Ikusi dokumentu honetako 9.8 OINARRIA "EGONALDIAREN LUZAPENAK".

3.5.- Erasmus+ programaren barruan ikasleak gehienez 12 hilabete egin ahal izango ditu ziklo bakoitzean (graduarean, masterrean edo doktoregoan) Erasmus+ mugikortasunetan (ikasketa mugikortasun luzeak eta laburrak, BIP formatuko egonaldiak eta praktiketako mugikortasuna).

3.6.- Erasmus+ programaren barruan, gehienez ere bi egonaldi luze eta praktiketako Erasmus+ mugikortasun bat egin ahal izango dira ikasten den titulazio bakoitzeko, **betiere 12 hilabete eginez guztira ziklo bakoitzean**.

LA eta BNB programetan mugikortasun bakarra egin ahal izango da titulazio bakoitzeko. Hau da, titulazio batean LA mugikortasuna egiten bada, ezingo da BNB mugikortasunik egin titulazio horretan bertan, eta alderantziz.

BNB modalitatean KA171 programako beka batekin egiten diren ikasteko mugikortasunak Erasmus+ programako mugikortasuntzat hartuko dira.

3.7.- Ikaslea bigarren aldiz aurkeztu ahal izango da LA eta BNB programetara, baldin eta beste titulazio bat egiten ari bada, hau da, lehen egonaldiaren garaian egiten zebilenaz bestelakoa.

3.8.- Mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duenak plaza bat lortzeko lehentasuna izango du nazioarteko bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurrean titulazio berean edo beste batean.

4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

Eskaera GAUR aplikazioaren bidez aurkeztuko da, UNIBERTSITATE TRUKEA atalean. Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskolako ikasleek beren ikastegian aurkeztuko dute eskaera.

Eskaerak aurkezteko epea **2025eko azaroaren 10ean hasi eta 24an** bukatuko da.

5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza da organo eskuduna **KUPO OROKORREKO aldebiko hitzarmen**etako mugikortasun plazak esleitzeko (GAUREn "DENAK" izenaren pean agertzen dira) . Gainerako plazak (**IKASTEGI BAKOITZERAKO KUPOA** duten **aldebiko hitzarmenak**) ikastegi bakoitzak esleitu ditu.

Honako hauek dira esleipenerako arau orokorrak:

5.1.- Plaza hauetarako hautagai izateko, eskaera egitean ikaslea EHUko gradu bateko bigarren mailan (Itzulpengintza eta Interpretazio Graduak) edo master bateko lehenengo mailan eskatu ahal izango baitute mugikortasuna) edo master bateko lehenengo mailan matrikulatuta egon beharko da gutxienez, eta atzerriko unibertsitateek eskatutako hizkuntza ziurtagiria izan beharko du.

5.2.- Medikuntzako Graduak 6. mailan Txandako Praktika Gidatuak egiten ari diren ikasleek aipatutako plazak eskatu ahal izango dituzte Erasmus+ praktikak modalitatearen barruan, praktika horien iraupena urtebetera heltzen ez bada. Horiez gain, Practicum egiten ari diren Fisioterapiako 4. mailako ikasleek ere aipatutako plazak eskatu ahal izango dituzte.

Ez dira izango hautagai aurreko deialdietan [EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#) ez betetzeagatik zigorra duten ikasleak.

5.3.- Hautaketa irizpideak

Hautaketarako oinarria **merezimendu akademikoa** izango da. Horretarako, kontuan hartuko da **2026/2027** mugikortasun deialdiko hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak aurkeztu duen batez besteko nota.

Irizpide hori oinarri hartuta, esleipena honetara egingo da:

- Lehentasuna izango dute iraupen luzeko egonaldietarako nazioarteko mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleak.
- 2025ko irailaren 30ean batezbesteko nota altuena duten eskatzaileei esleitu zaie plaza.

- c) LA programan eta BNB programan, merezimendu akademikoez gain, ikastegien arteko banaketa hartuko da kontuan, graduak modu orekatuan egon daitezen ordezkaturik destino bakoitzean.
- d) Bajarik edo ukorik balego, eta egutegiak horretarako aukera ematen badu, libre geratu diren plazak banatuko lirateke destino horretara aurkeztu baina plazarik lortu ez duten hautagaien artean, batez besteko notaren arabera hurrenkeran.

5.4.- Lortutako plazari uko egin nahi diotenek edo kasuan kasuko programa utzi nahi dutenek GAUR aplikazioaren bidez egin beharko dute, oinarri hauetako 7. puntuan ezartzen diren epeetan. Horrela egiten ez duen ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

Epe horien ostean gertatutako ezusteko gorabeherengatik ikasleak plazari uko egin nahi badio edo, behin atzerriko unibertsitatean egonda, programa bertan behera utzi, behar bezala justifikatu beharko du, ikastegiko mugikortasun koordinatzailearen eta errektoreordearen aurrean. Errektoreordetzak uko egiteko eskaeraren oinarria aztertuko du, eta erabakiko du ikaslea zigortuko duen ala ez hurrengo ikasturtean nazioarteko mugikortasun programan parte hartu barik.

6.- ESKAERAK ZUZENDU EDO OSATZEA

Hamar (10) egun balioduneko epea egongo da dokumentazioa zuzendu edo osatzeko (ikusitako egutegia eranskinean). Epe hori igarota ez badira jaso eskatutako agiriak, ikasleak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, aurkeztu ez duen dokumentazioari dagokionez. Aurkeztu gabeko agiriak edota zuzendu gabeko okerrak ez badira eragozpen ikaslearen eskaera orokorrean agertzen diren beste unibertsitate batzuetara joateko, eskariok baliozkotzat hartuko dira.

7.- PROZEDURA

Prozedura hasiko da eskaera aurkezten denean GAUR aplikazioaren bitartez, eta ondoren aipatzen diren FASEAK izango ditu. Interesdunak NAHITAEZ parte hartu behar du fase horietan guztietan. Hauexek dira faseak:

1.- ESKAERA. ESKAERA aurkezteko epea 2025eko azaroaren 10ean irekiko da eta 2025eko azaroaren 24an itxiko da, 23:59an.

2.- PLAZA ESLEITU ETA HARTZEKO LEHENENGO PROPOSAMENA
Errektoreordetzak "plaza esleitu eta hartzeko proposamena" bidaliko dio ikasle bakoitzari **2026ko urtarrilaren 13an**. Proposamen hori egingo da kontuan hartuta ikaslearen merezimenduak, horien arabera esleitu bakoitzari plaza, eskaera egitean GAUREn adierazitako lehentasun ordenari jarraituz. Prozedurak eskatzen duenez ikasleak bere nahia jakinaraztea FASE BATETIK BESTERA pasatu ahal izateko, helaraziko zaion proposamena onartu beharko du ikasleak, ala uko egin, horretarako egongo den epearen barruan. Ikasleak ez badu erantzuten prozesutik

kanpo geratuko da, eta ez zaio eskainiko plazarik ez fase honetan ez hurrengoetan.
SEI (6) egun balioduneko epea emango da, **2026ko urtarrilaren 21eko 23:59ak arte**, egindako proposamena **onartu ala uko egiteko**.

3.- PLAZA ESLEITU ETA HARTZEKO BIGARREN PROPOSAMENA. LEHENENGO PROPOSAMENA onartu ala uko egiteko epea behin amaituta, Nazioarteko Harremanen Zerbitzuak BIGARREN PROPOSAMENA egingo du. Proposamen horretan agertuko dira LEHENENGOAN hartu ez ziren plaza guztiak, bai eta bete gabe geratutakoak ere, beren nahia epearen barruan adierazi ez zuten interesdunak prozesutik kanpo geratu izanagatik. BIGARREN PROPOSAMEN hori argitaratuko da **2026ko otsailaren 9an**. Kasu honetan **BOST (5) egun balioduneko epea** emango da, **2026ko otsailaren 17ko 23:59ak arte**, proposamena onartu ala uko egiteko.

4.- IKASTEGIEK ESLEITZEA BETE GABE GERATUTAKO PLAZAK. Eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera, Fakultate bakoitzari aukera emango zaio bete gabe geratu diren plazak esleitzeko, eskaera egitean BESTE AUKERA BATZUK markatu duten ikasleei. Horretarako epea **2026ko otsailaren 20an** amaituko da.

Plazak esleitzen dituen azken erabakiak ez du agortzen administrazio bidea. Erabaki horren aurka gorako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errektoreari hilabeteko epean, erabakia EHUKo webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (121. artikulua eta hurrengoak). Gora jotzeko errekurtsuaren ebazpenaren aurka, ezingo da bestelako administrazio errekurtsorik jarri, salbu eta, 125.1 artikuluan ezarritako kasuetan, berrikuspen errekurtsu berezia. Era berean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia EHUKo webgune ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikulua).

8.- DIRULAGUNTZAK

8.1.- ERASMUS+ PROGRAMAREN DIRULAGUNTZAK

Erasmus+ programaren barruan mugikortasun plaza bat esleitzeak dirulaguntza bat dakar, kontzeptu batzuetarako, ondoren azaltzen den moduan. Dirulaguntzaren zenbatekoa [SEPIE](#)k zehazten du, bai mugikortasun fisiko hutseko modalitateetarako, bai mugikortasun konbinaturako (hau da, beste herrialde batera fisikoki joatea gutxienez 2 hilabeterako) + egonaldi birtuala egitea. Mugikortasun birtualeko eta mugikortasun konbinatuko jarduerak agiriaren bidez egiaztatutako beharko dira (kalifikazioen ziurtagiriaz). **Dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbesteko baldintza da banku-kontu bat izatea Espainiako banketxe batean. Ez da egingo diru sarrerarik beste herrialde batzuetako kontuetan.**

Laguntza hori jasotzeko, ezinbesteko baldintza izango da mugikortasuneko ikasleak **dirulaguntzarako hitzarmen bat sinatzea.**

Bekaren zenbatekoa Erasmus+ 2021-2027 programan zehaztutakoaren arabera izango da. **2026/2027**ko deialdian bekaren zenbatekoa kategoria hauen arabera izango da:

1) EBaren funtsetatik datorren dirulaguntza egonaldi osorako

Aukera gutxiagoko ikasleek —beherago azaltzen direnak— egonaldi osorako dirulaguntza jasoko dute.

2) EBaren funtsetatik datorren dirulaguntza egonaldiaren zati baterako

Aukera gutxiagokoen taldeetan sartzen ez diren ikasleek egonaldiaren zati baterako dirulaguntza jasoko dute, betiere horretarako eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera. Dirulaguntza hori izango da gehienez ere **4 hilabeterako** lauhileko bateko mugikortasunen kasuan, eta gehienez ere **8 hilabeterako** ikasturte osoko mugikortasunen kasuan.

Dirulaguntza kontzeptu hauetarako emango da:

1) Mugikortasun fisiko luzerako laguntzen zenbatekoa

Mugikortasun fisiko luzerako laguntza indibidualaren zenbatekoak zehaztuko dira kontuan hartuta gehienera ordainduko diren hilabeteak —gorago aipatuak— eta ikaslea joango den herrialdea kokatuta dagoen taldea, taula honen arabera:

1. taldea	Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Finlandia, Frantzia, Herbehereak, Irlanda, Islandia, Italia, Liechtenstein, Luxenburgo, Norvegia, Suedia, Suitza	350 € hilean
2. taldea	Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Grezia, Letonia, Malta, Portugal, Txekiar Errepublika, Zipre	300 € hilean
3. taldea	Bulgaria, Errumania, Hungaria, Ipar Mazedoniako Errepublika, Kroazia, Lituania, Polonia, Serbia, Turkia	250 € hilean

Talde horiek indarrean daude aurreko deialdia argitaratu zenetik (2025eko azaroa), horregatik aldatu daitezke 2026-2027 deialdiko mugikortasunak egiten direnean.

Ikasleak jasoko duen dirulaguntza izango da atzerriko herrialdeari dagokion zenbatekoa bider dirulaguntzako hitzarmenean sinatutako hilabete kopurua (gehienez ere gorago aipatu diren kopuruak), aukera gutxiagoko ikasleak izan ezik. Ikasle horiek jasoko duten dirulaguntza izango da egonaldi osorako, eta kalkulatu da programako arauari jarraituta.

Egonaldiaren amaieran, **CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak eta egunak egiaztatzeko. Hala badagokio, Nazioarteko Harremanen Bulegoak (NHB) ikasleari eskatuko dio egiaztatu gabeko hilabeteengatik jasotako dirua itzul dezan.**

Egonaldiak luzatzeko finantziazioa ez dago bermatuta, eta eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera izango da.

2) Aukera gutxiagoko ikasleak

Inklusio eta aniztasunari buruzko estrategia berriaren barruan, Europako Batzordeak behartzen ditu unibertsitateak ematera **250 euroko laguntza gehigarria hilean** Erasmus+ mugikortasun luzeak (bi eta hamabi hilabeteko artekoak) egingo dituzten aukera gutxiagoko ikasleei, betiere gorago aipatu diren finantziazio muga barruan. Aukera gutxiagoko kolektiboak ezarriko dira, eskuragarri dagoen aurrekontuaren arabera, honako hauen artean:

a) Mugikortasuna egin aurreko ikasturtean, Estatuko Administrazio Orokorren izaera orokorreko ikasketa beka bat jaso duten ikasleak unibertsitate ikasketak eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailarena jaso dutenak, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak unibertsitateko ikasleak eskolaratzeko beka bat jaso dutenak.

b) Errefuxiatua izatea edo babes subsidiariorako eskubidea izatea, edo Espainian nazioarteko babeserako eskaera aurkeztuta izatea.

c) % 33ko desgaitasun maila edo handiagoa izatea onartuta eta legez kalifikatua.

Era berean, ikasleek laguntza osagarriak izango dituzte kasu hauetan:

d) Katetoria bereziko familia ugariko kide badira.

e) Katetoria orokorreko familia ugariko kide badira.

f) Terrorismoaren biktima eta senide badira.

g) Genetio indarkeriaren biktima badira.

h) Autismoaren espektroko nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak badituzte.

i) Arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduaren diagnostiko ziurtatuak badituzte.

j) Ikasteko zailtasunak dituzten diagnostiko ziurtatuak

k) Nahasmendu psikikoak dituzten diagnostiko ziurtatuak

Baldin eta aurrekontu nahikoa badago, talde horietako batean sartzen diren ikasleek egonaldi osoan jasoko dituzte dirulaguntzak, bat etorrita izenpetu beharko dituzten finantza kontratuetan zehaztuko diren arauekin. Dirulaguntza jaso ahal izateko, egoera horietako batean dagoen ikasleak **egoera hori erregistratu beharko du —matrikula egiterakoan egin ez badu— kasuan kasuko zerbitzuan, **2026ko maiatzaren 31 baino lehen:****

- ataletik F) atalera arteko egoeraren batean dauden graduiko ikasleak: eskola edo fakultateko idazkaritzan.
- ataletik F) atalera arteko egoeraren batean dauden masterreko ikasleak: eskola edo fakultateko idazkaritzan edo masterreko idazkaritza espezifikoa.
- G) eta H) ataletako egoeran dauden ikasle guztiak: Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuan (discap@ehu.eus).

Nazioarteko Harremanen Bulegoak egiaztatuko du, **2026ko maiatzaren 31n**, gorago aipatu diren zerbitzuetako arduradunekin batera, Erasmus+ mugikortasuna egiten duen ikasle bakoitzaren egoera, laguntza gehigarria dagokion ala ez ikusteko.

3) Bidaiarako laguntza (ekologikoa ala ez-ekologikoa)

Bidaiarako laguntza bat emango da (ikusi taula), jatorriko unibertsitatetik atzerriko unibertsitatera dagoen distantziaren arabera (distantzia kalkulatzeko erabiliko da batzordearen webgunean agertzen den kalkulagailua: https://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/resources/distance-calculator_es), eta kontuan hartuta bidaia ekologikoa den ala ez:

Distantzia	Bidaia ekologikoa	Bidaia ez-ekologikoa
10 – 99 km	56 EUR	28 EUR
100 – 499 km	285 EUR	211 EUR
500 – 1999 km	417 EUR	309 EUR
2000 – 2999 km	535 EUR	395 EUR
3000 – 3999km	785 EUR	580 EUR
4000 – 7999 km	1188 EUR	1188 EUR
8000 km edo gehiago	1 735 EUR	1735 EUR

4) Bidaia egunak (laguntza gehigarriak)

Bi (2) egun, bidaia ez bada ekologikoa; eta gehienez sei egun, bidaia ekologikoa bada.

5) Inklusiorako laguntza (benetako kostuetan oinarritua)

Laguntza hau eska dezakete %33ko desgaitasun maila edo handiagoa daukaten ikasleek, bai eta ziurtagiri medikoaren bidez akreditatutako osasun arazo fisiko edo

mentalak dauzkaten ikasleek ere. Gizarteratzeko laguntza-eskaerak SEPIEren irizpideari eta balorazioari lotuta egongo dira.

Erasmus+ programako dirulaguntza guztiak emango dira SEPIEk onartu eta finantzatutako proiektuetan dauden aurrekontuen arabera.

8.2.- EUSKO JAURLARITZAREN BEKA

Eusko Jaurlaritzak urtero argitara ematen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateei zuzendutako **dirulaguntzak**, goi mailako hezkuntzako ikasleen nazioarteko mugikortasuna finantzatzen laguntzeko. Laguntza hori jaso ahal izateko, Nazioarteko Harremanen Bulegoak eskatuko dizkion agiriak aurkeztu beharko ditu ikasleak horretarako egongo den epearen barruan. Agiri horiek jasota, eta kontuan hartuta deialdiaren arabera onargarriak diren kasuak, unibertsitateak dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten ikasleen zerrenda egingo du. Dirulaguntza hori jasoko da deialdian zehazten den denborarako. Onuradunen zerrenda errektoreordetzaren webgunean emango da argitara ("Dirulaguntzak" atala). Dirulaguntza jasotzeko, ikasleak justifikatu beharko du egonaldian benetan emandako egun kopurua, eta horretarako aurkeztu beharko ditu egonaldiaren hasierako ziurtagiria (***Certificate of Arrival***) eta amaierako ziurtagiria (***Certificate of Attendance***), ezarriko diren epeen barruan.

Beka deialdi hau soilik bideratuta dago graduako eta master ofizialeko ikasleentzat; beraz, doktoregoko ikasleek ezin dute parte hartu. Era berean, ikasleak jasoko duen diru kopurua programaren arabera da: Erasmus+ programan parte hartzen badu jasoko duen dirulaguntza izango da programa horren babesean jasoko duenaren osagarri bat; Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programen kasuan, berriz, deialdian ezarritako kopuru osoa jasoko du.

8.3.- TRANSFERENTZIA ETA NAZIOARTEKOTZE ERREKTOREORDETZAREN BEKA

Ikasleei emango zaie **500.- €ko dirulaguntza (ordainketa bakarra)**, Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programen barruan plaza baten esleipendun suertatzen badira. Laguntza hori bi irizpideren arabera esleituko da:

Bat, merezimendu akademikoan oinarritua, mugikortasun-deialdi honetarako erabiltzen den nota erreferentziatzat hartuta. Bestea, berriz, fakultate eta eskolen arabera banaketa proportzionalen oinarritzen da; banaketa hori Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programetan parte hartzen duten ikasleen guztizko kopuruaren arabera ikastetxe bakoitzak dituen partaidetza-ehunekoen arabera aplikatuko da. Hau da, ikastetxe bakoitzeko ikasleei emango zaie laguntza, emaitza-ordenaren arabera, eskuragarri dauden funtsak agortu arte.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak ofizioz tramitatuko du laguntza hori, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango ikasleek eskatzea.

Onuradunen zerrenda Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da ("Diru-laguntzak" atala).

9. MUGIKORTASUNeko IKASLEEN BETEBEHARRAK (ERASMUS+, LATINOAMERIKA ETA BESTE NORAKO BATZUK)

9.1.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

ERASMUS+ mugikortasun beka dutenek izango dituzte "ERASMUS+ ikaslearen gutunean" aipatutako eskubideak eta betebeharrak, eta bete egin beharko dituzte bai [EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#), bai kasuan kasuko atzerriko unibertsitateko arauak, bertan dauden bitartean.

Edozein mugikortasun programatan (Erasmus+, Latinoamerika edo Beste Norako Batzuk) izan, eskarian destinoak hautatzerakoan, **ikasleen ardura izango da begiratzea beren ikasketak ematen diren ala ez beren intereseko unibertsitateetan**. Ikasleak aukeratzen badu bere ikasketak ematen ez diren lekuren bat, edo ikasketa horietarako mugikortasun aldeko hitzarmen espezifikorik ez dagoen lekuren bat, galdu egingo du mugikortasunerako aukera.

9.2.- ONARPENA ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN

EHUK mugikortasun plaza bat esleitu izanak **EZ du nahitaez esan nahi atzerriko unibertsitateak ikaslea onartuko duenik**. Ikaslearen erantzukizuna da atzerriko unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea. Ikasleak derrigorrez bete beharko ditu unibertsitate bakoitzak onarpen eskabideak aurkezteko (batzuetan online) ezartzen dituen epeak; izan ere, unibertsitate askok ez dituzte onartzen epez kanpo bidalitako eskaerak.

Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programei dagokienez, onarpen gutuna lortzeko tramiteari buruzko informazioa (datak, inprimakiak...) Nazioarteko Harremanen Bulegoaren webgunean dago, horri dagokion atalean. Garrantzitsua da helmuga bakoitzerako zehazten diren jarraibideei eta eguneraketei jaramon egitea.

Ikaslearen ardura izango da atzerriko herrialdean sartzeko eta bertan egoteko legearen arabera beharrezkoak diren baimenak edo agiriak lortzea behar besteko aurreikuspenarekin (bisak, egoitza txartelak, etab.) eta, hala badagokio, berritzea, trukeak dirauen bitartean.

Halaber, ikaslearen ardura izango da bere egonaldiako ostatua gestionatzea, bai eta atzerriko unibertsitateak edo herrialdeak ezar lezakeen beste edozein betebeharrak kudeatzea ere. Unibertsitate batzuetan nahitaezkoa da beraiek edo gobernuak eskaintako osasun aseguru bat kontratatzea. Aseguru horiek kontratatatu arren bidaia laguntzarako aseguru ere kontratatatu behar da, bere baitan hartzen dituen osasun garraioa eta interesduna hilez gero aberriratzea, baldin eta atzerrian kontratatutako aseguruak horiek barne hartzen ez baditu.

Era berean, pandemiak eragindako osasun egoera dela eta, ezinbestekoa da kontratatutako aseguruak Covid-19 estaldura ematea, bai eta lehenago itzuli beharra izatea ere gaixotasun horren ondorioz. Bestalde, egonaldia denboraz hasi behar denez prestatzen, gomendatzen da hegaldiak kontratatzean bidaia bertan behera utzi ahal izateko aseguru egitea.

Ikaslea ez badute onartzen esleitutako tokian, Nazioarteko Harremanen Bulegoak, ikastegiko koordinatzailearekin batera, egoera horren arrazoiak aztertuko ditu; eta, beste helmugaren bat libre egongo balitz, saiatuko da ikasle horri esleitzen. Betiere kontuan hartuta hura onartzea helmugako unibertsitateari dagokiola.

Ikasleak ez du tasarik ordainduko atzerriko unibertsitatean, jatorriko unibertsitatean ordaintzen dituelako. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari zenbait gastutarako, hala nola ikasleen sindikatuetan afiliatzeko, materialerako (fotokopiak, laborategiko produktuak eta abar) edo zenbait jardueratarako, baina bertako ikasleen baldintza berberetan.

9.3.- AKORDIO AKADEMIKOA

AKORDIO AKADEMIKOA (LEARNING AGREEMENT) ikasketa **kontratu** bat da, ikasleak egiten duena EHUko ikastegiko koordinatzailearekin eta atzerriko unibertsitateko koordinatzailearekin.

Erasmus+ programaren kasuan, EWP-EHU Dashboarden bidez egingo da. Erasmus+ programaren kasuan, ikasleak, jatorriko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunak eta atzerriko unibertsitateko arduradunak bete beharko dute akordio akademikoa, ikaslea atzerrira joan aurretik. Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programetan, ikasleak eta jatorriko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunak behin-behineko akordio akademikoa egin beharko dute, ikaslea atzerrira joan aurretik.

Akordio akademikoan jasoko dira ikasleak atzerriko unibertsitatean egingo dituen irakasgaiak eta kredituak, eta atzerriko horiek gaindituz gero, EHUko ikasketa planean aitortuko zaizkionak. Kontratua loteslea izan dadin, ikaslearen sinadura eta bi unibertsitateetako ordezkarien sinadura baimenduak izan beharko ditu.

Ikastegiko koordinatzaileari akordio akademikoaren proposamena aurkeztuko zaio, aztertu dezan. Koordinatzaileak egokitzat jo dezake, edo aldaketak proposa ditzake, arrazoi akademikoetan oinarrituta. Ikasleak behin aldaketak egin, eta koordinatzaileak behin ontzat jota, dokumentua prest egongo da sinatzeko.

Hala ere, akordio akademikoa sinatzean ezinbestekoa da ikasleak bere ikastegiko koordinatzaileari aurkeztea bidaia laguntzarako aseguru polizaren eta ordainagiriaren kopia. Esan bezala, aseguruak barne hartu beharko ditu arreta medikoa gaixotasun edo istripuetarako, osasun garraioa eta aberrirratzea. IBILI poliza mugikortasuna hasten denean aktibatzen da, eta, beraz, aldeztu aurretik kontrata daiteke, desplazamendua hasi arte ez baita indarrean jarriko. Dokumentu hori aurkeztu ez bada, koordinatzaileek ez dute ontzat emango akordio akademikoa.

Erasmus+ programaren kasuan, akordio akademikoa ikaslea abiatu aurretik sinatuko dute ikasleak eta bi unibertsitateetako koordinatzaileek, eta dokumentuari aldaketak egin ahal izango zaizkio ikaslea atzerrira heldu ondoren EWP-EHU Dashboarden bidez. Aldaketarik egonez gero, berehala eman beharko zaie horien berri ikastegiko koordinatzaileari, ikasketa aldi bakoitzaren hasieran.

[EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#)ren **12.8 artikuluan** ezarritakoaren arabera, **SOILIK EGIN AHAL IZANGO DIRA ALDAKETAK AKORDIO AKADEMIKOAN ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN SARTU ETA HILABETEKO EPEAN. IKASTURTE OSOKO EGONALDIAK DIRENEAN, IKASLEEK BIGARREN LAUHILEKOA HASI ETA HILABETEKO EPEA IZANGO DUTE ERE, LAUHILEKO HORREN IRAKASGAIAK ALDATZEKO.**

Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programen kasuan, ikaslea abiatu aurretik berak eta koordinatzaileak sinatutako akordio akademikoa behin-behinekoa izango da, eta ikaslea atzerriko unibertsitate batera heldu ondoren bihurtuko da behin betiko. Horretarako, ikasleak dokumentua osatu, eta, hala badagokio, egokituko du atzerriko unibertsitateko nazioarteko harremanen arduradunarekin batera, eta jatorriko unibertsitateko nazioarteko harremanen arduradunari bidali. Hark aztertuko du, eta, ikastegiaren eta EHUren arauak betetzen baditu, balidatu egingo du. Horrela ez bada, onartzen ez diren irakasgaiak aldatzea aginduko da.

Dena dela, ezin izango dira **INOLAZ ERE** sartu dokumentu horretan EHUn dagoeneko "gainditutzat" edo "suspentsotzat" kalifikatutako irakasgaiak (era berean, ezin izango da eskatu akordio akademikoa jasota ez dagoen irakasgaiarik aitortzea, nahiz eta ikasleak irakasgai horiek egin atzerriko unibertsitatean). Sartu ahal izango dira, ordea, ikaslea EHUn matrikulatuta dagoen baina aurkeztu ez den irakasgaiak, "aurkezteke" kalifikazioarekin agertzen direnak.

Titulazio bateko ikasketa planak guztira eskatzen duen baino kreditu gehiagotan matrikulatu behar bada ikaslea, ez delako iristen mugikortasun batean parte hartzeko araudiak eskatzen duen gutxienez, egonaldiaren iraupenaren arabera, baimena eskatu beharko dio koordinatzaileari, bestela irakasgai horiek ezin izango baitira matrikulan jaso.

Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk programen kasuan kreditu kopuru hauek (EHUn matrikulatutakoak) egin beharko dira, egonaldiaren arabera:

Gutxienez 12 kreditu eta gehienez 15, 3 hilabeteko egonaldietarako.

Gutxienez 24 kreditu eta gehienez 30, 5 hilabeteko egonaldietarako.

Gutxienez 48 kreditu eta gehienez 60, ikasturte osoko egonaldietarako.

Erasmus+ programaren kasuan, nahitaezkoa izango da iraupen bakoitzari dagokion gehieneko kreditu kopuruan matrikulatzea.

Aipatutako kreditu kopurua aldatu ahal izango da, salbuespenez, horretarako arrazoiak azalduta eta, betiere, baldin eta Nazioartekotze zuzendariak ontzat ematen badu.

Horri dagokionez, gogoan izan behar da ikasturte bakoitzean gehienez ere 60 ECTS kreditu aitortuko direla mugikortasun ekintzengatik, hala baitago jasota [Graduko Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegi](#)ko 12. artikuluan.

9.4.- ERRENDIMENDU AKADEMIKOA

Ikasleak atzerriko unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko du eta bertako egonaldian gainditu beharko ditu EHUn trukerako moduan matrikulatutako kredituen erdiak (% 50), gutxienez. Ehuneko hori gainditu ezean eskatuko zaio mugikortasunerako jaso dituen laguntzak itzultzeko.

9.5.- ATZERRIKO HIZKUNTZA JAKITEA

Ikasleak behar besteko maila izan beharko du atzerriko erakundean irakaskuntzarako erabiliko den hizkuntzan. Atzerriko unibertsitateak zehazten du zein maila izan behar duen ikasleak.

Deialdi honi erantsitako dokumentuetan agertzen den informazioaz gain, unibertsitateen webguneak kontsultatu behar dira, jakiteko zein den ikasleak egiaztatu beharko duen hizkuntza maila plaza bakoitza eskatu ahal izateko. Maila hori deialdiaren datan izan beharko da egiaztatuta.

Aipatutako eskakizunak gorabehera, Erasmus+ mugikortasuna egiten dutenek hizkuntza² azterketa egin beharko dute OLS plataforman, Nazioarteko Harremanen Bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta, egonaldia egitera abiatu baino lehen. Ikasle guztiek egin beharko dute OLSko azterketa, berdin da egonaldi fisikoa edo birtuala egin behar duten.

Era berean, plaza eman ondoren, mugikortasuna hasi baino hilabete lehenago gutxi gorabehera, posta elektroniko bat bidaltzen da ikaslearen posta pertsonalera. Proba hori helmugako irakaskuntza nagusiko hizkuntzan mugikortasun-aldia baino lehen egin behar da, hizkuntza horretako jatorrizko pertsonentzat izan ezik.

Ikasleak hizkuntza mailaren ebaluazioa egiten ez badu, ezin izango du mugikortasuna egin eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko da. Horrek esan nahi du ez duela jasoko ez bekarik ez atzerrian egindako ikasketen aitortpen akademikorik.

9.6.- MUGIKORTASUNA EGITEA

² Hizkuntza-testak mugikortasunaren aurretik ikaslearen maila ezartzen du, eta ez du zerikusirik mugikortasuna egiteko eskatzen den derrigorrezko mailaren ziurtagiriarekin, eta estatistika-ondorioetarako datuak biltzea du helburu.

9.6.1.- Ikaslea ezarritako egunean hasiko da atzerriko ikastegian. Hala egiten ez badu, mugikortasunarekin lotutako betebeharrak bete ez dituela ulertuko da. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri errektoreordetzari, GAUR aplikazioaren bidez, atzerriko unibertsitatean hasiko den eguna baino lehenago. Izan ere, jakinarazi ezean, ikaslea baztertuta geratuko da EHUko mugikortasun programen hurrengo deialditik.

Ikasleak bere borondatez uzten badu mugikortasuna bertan behera, behin hasita, jakinaren gainean jarri beharko du errektoreordetza, GAUR aplikazioaren bidez edo mezu bat bidalita (movilidad.internacional@ehu.eus) helbidera, bere egoera eguneratzeko. Egoeraren berri ematen ez badu eta laguntzarik ordaindu bazaio, fede txarreko jokabidetzat hartuko da. Edozelan ere, ikasleak mugikortasuna bertan behera uzten badu baimenik gabe, jasotako laguntzak itzuli beharko ditu, mugikortasuna ez badu utzi ezinbesteko arrazoiengatik edo eskoletara joatea eragozten dion gaixotasun larri luze edo istripu larriagatik.

Mugikortasunaren iraupena edo lauhilekoa aldatu ahal izateko, Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta ikastegiko koordinatzaileak oniritzia eman beharko du, bai eta atzerriko unibertsitateko programaren arduradunak ere, eskariaren arrazoiak aztertu eta gero. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.9 atalean aipatzen dena aplikatuko zaio ikasleari.

9.6.2.- Behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, ikasleak egiaztatu egin beharko du egonaldia benetan egin izana eta horren iraupena. Horretarako, egonaldia hasi edo bukatu eta gehienez **hilabetera**, kasuaren arabera, egonaldiaren hasierako agiria (**Certificate of arrival**) eta amaierako agiria (**Certificate of Attendance**) aurkeztu beharko ditu, atzerriko unibertsitateak izenpetuta eta zigilua ezarrita. Ziurtagirietan ikusiko balitz egonaldian emandako hilabeteak izan direla ordaindutakoak baino gutxiago, egiaztatu gabeko denbora tarteei dagokien dirua itzultzeko eskatuko da, kasuan kasuko diru laguntzen programako arauei jarraituta.

9.7.- NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

9.7.1.- Europako Osasun Txartela (TSE) eskuratu beharko da Gizarte Segurantzaren (ERASMUS+ programarako bakarrik) eta, atzerriko unibertsitateira **iritsi aurretik**, bidaiarako aseguru bat egin beharko da, egonaldi OSOAN gaixotasunagatik (Covid-19a barne) eta istripuengatik jaso beharreko arreta medikua bere baitan hartzen duena eta, bereziki, gastuen mugagabeko estaldura duena interesduna hilez gero aberriratzeko eta bere herrialdera bueltan eramateko, gaixotasun edo istripu larria izanez gero. 9.3 puntuan adierazi denez, ikasleak aseguru osagarri horren polizaren eta ordainagiriaren kopiak aurkeztu beharko ditu akordio akademikoa sinatzen duenean jatorriko bere EHUko ikastegiko nazioarteko harremanen arduradunarekin batera.

Ikasleak ez badio aurkezten aseguru osagarriaren egiaztagiri hori jatorriko ikastegiko Nazioarteko Harremanen arduradunari akordio akademikoaren proposamenarekin batera, arduradunak ez du sinatuko akordio akademikoa eta ez du emango ontzat dokumentu hori. Beraz, ikasleak ezingo du egin Erasmus+

mugikortasuna eta unibertsitateak bere kabuz emango dio baja programa horretan.

9.7.2.- Mugikortasunari hasiera eman aurretik, ikasleak sinatuta aurkeztu beharko du GAUReko profilean eskura daukan **dirulaguntzarako hitzarmena** (ERASMUS+ dirulaguntzarako hitzarmena edo LA/BNB dirulaguntzarako hitzarmena, errektoreordetzatik LA/BNB programetarako laguntza bat jasoz gero). Era berean, egonaldia amaitu ostean, **ikaslearen azken txostena** egin beharko dute ERASMUS+ programako ikasleek, webgunearen bidez.

Dirulaguntzarako hitzarmenak arautzen ditu, [EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#) rekin eta oinarri hauekin batera, deialdi honen bidez mugikortasun programa batean parte hartzen duen ikaslearen baldintza, eskubide eta betebeharrak ekonomikoak.

9.7.3.- ERASMUS+ mugikortasunen kasuan, Nazioarteko Harremanen Bulegoak ***Certificate of Attendance*** agirian azaltzen diren datak sartuko ditu Europako Batzordeak programa kudeatzeko darabilen tresna informatikoan, eta orduan batzordeak mezu automatikoki bat bidaliko die ikasleei EHUko korreo elektronikoki ofizialera **azken txostena** egin dezaten.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, ikaslea adi egon beharko da ikasturtea amaitu arte.

Mezua eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbidetik (letra xehez) helduko da "ikasle" helbide elektronikora, eta gerta liteke spam karpeta sartzea. Bertan esteka bat ematen da txostena eskuratzeko eta, behin jasota, 30 egun naturaleko epean itzultzeko.

Ikasleak txostena bete ezean, programa ez duela bete ulertuko da eta gerta liteke jasotako dirulaguntza itzuli beharra eta ERASMUS+ mugikortasunaren aitorpena galtzea.

9.7.4.- Atzerrira joan aurretik, bisatua lortzeko izapideak egin beharko ditu ikasleak, herrialdeak halakorik eskatzen badu, bai eta atzerriko unibertsitatean hasi ondoren herrialdean egoteko beharrezkoak izan daitezkeen bestelako tramite administratiboak ere. Nazioarteko Harremanen Bulegoak ez du izango erantzukizunik ikasleak mugikortasuna galtzen badu tramite pertsonal horiek ez egiteagatik.

9.8.- EGONALDIAREN LUZAPENAK

EGONALDIEN LUZAPENAK EGIN AHAL IZANGO DIRA SOILIK ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN SARTU ETA HILABETEKO EPEAN, BALDIN ETA BEHAR BEZALA JUSTIFIKATUTAKO ARRAZOIRIK BADAGO.

Egonaldi luzapenaren eskaera [EHUko ikasleen nazioarteko mugikortasun programei buruzko Arautegia](#) ri egokitu behar zaio, baita Deialdi honetan ezartzen denari ere.

Onartutako hilabete kopurua baino egonaldi luzeagoa egin nahi izanez gero (betiere 12 hilabeteko muga gainditu barik ikasturte batean), ikasleak koordinatzaileen baimena izan beharko du (jatorriko nahiz atzerriko unibertsitatekoena). Gainera, eskatzailearen EHUko ikastegiak luzapenerako baimena eskatu beharko dio

Nazioarteko Harremanen Bulegoari, mezu bat bidalita gaur-ori.internacional@ehu.eus helbidera. Egonaldia luzatuko da baldin eta ikasketa kontratuan (**Learning Agreement-Akordio Akademikoa**) egin beharreko aldaketak egiten badira, Erasmus+ programaren kasuan EWP-EHU Dashboarden. Bestalde, aseguru mediko osagarriaren indarraldia luzatu izanaren agiriaren kopia aurkeztu beharko da.

Luzapena ez da izango inolaz ere automatikoa. Erasmus+ mugikortasunen kasuan egonaldiak luzatzeko eskaerak ebaluatuko dira Erasmus+ programako irizpideei jarraituta.

Edonola ere, luzapeneko hilabeteetan ikasleak jasoko du dirulaguntza aurrekontuek horretarako aukera ematen badute, betiere kontuan hartuta Erasmus+ programako irizpideak eta gainerako dirulaguntzak ematekoak. Aurrekontuetan aukera badago aipatutako dirulaguntzak emateko, lehenik eta behin finantzatuko dira Erasmus+ mugikortasuna egiten ari diren aukera gutxiagoko ikasleei onartutako luzapenak.

9.9.- ARAU HAUSTEAK

9.9.1.- Aipatutako betebeharrak justifikaziorik gabe ez betetzeak ondorio hauek izan ditzake, kasuan kasu: dirulaguntzaren deuseztapena, eta beraz, beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, dirulaguntzarako hitzarmena ezeztatzea (eta, ondorioz, ikasleak jasotako dirulaguntza guztiak itzuli behar izatea), baita ikaslea baztertzea ere errektoreordetza honek gerora bultza ditzakeen mugikortasun programetako hautaketa prozesu guztietatik.

Era berean, ikasleak ez baditu betetzen kredituei, hizkuntzari, aseguruari, akordio akademikoari eta abarri dagozkion baldintzak atzerriko unibertsitatera iristen denean, baja emango zaio automatikoki programan.

9.9.2.- Zehazki, hitzartutakoa baino egonaldi laburragoa eginez gero, dirulaguntzaren kontratuak behartuko du ikaslea jasotako laguntza proportzio horretan itzultzera, CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren arabera benetan egin duen egun kopurua aintzat hartuta.

9.9.3.- Bestalde, errendimendu akademikoaren arloko betebeharrak betetzen ez baditu, jasotako laguntza osoa itzuli beharko du.

10.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Erabaki honetan ezarritako arauak hautsiz gero, errektoreordetzak jakinarazpen bat bidali ahal izango dio ikasleari laguntzak itzularazteko prozedurari ekin aurretik. Ikasleak dirua itzultzeari uko eginez gero, prozedura honi jarraituko zaio:

- a) Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordeak interesdunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura ireki dela eta horren arrazoiak azalduko dizkio. Instrukture bat izendatuko du eta hamabost eguneko epea zabalduko du ikasleak alegazioak egin ditzan eta nahi dituen frogak proposatu. Prozedura irekitzearekin batera eten egingo dira ordainketak.
- b) Alegazioak jasota edo horiek egiteko epea alegaziorik gabe igarota, aurrera jarraituko da prozedurarekin eta interesdunari onartu zaizkion frogak egingo dira. Horren ostean, erabaki proposamena aurkeztuko da, eta interesdunari jakinaraziko zaio, azken alegazioak egin ditzan. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordeak izango du eskumena erabakia emateko.

Prozedura ebazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da. Ez dira zenbatuko administratuak ezer egin ez duelako jarduerarik egon ez den aldiak. Frogatutzat jotzen bada ikasleak betebeharretan huts egin duela, erabakiak xedatuko du laguntza jasotzeko eskubidea galdu duela, eta, hala dagokionean, EHUri kasuan kasuko zenbatekoa gehi legezko interesa itzuli behar diola, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen duenetik hasita.

- c) Prozedura amaituta, eta ez bada itzuli dirua borondatezko epearen barruan, premiamendu bidez erreklamatu da eta jakinaren gainean jarriko dira Gerentzia, Graduak eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea eta gaian eskumenak dituzten EHUKo organoak, lege eta arau aplikagarrien arabera neurriak har ditzaten.

Dirua itzultzeko beharra ezartzen duen erabakia betetzen ez bada, batere edo ez bere osoan, interesduna EHUn zordun bihurtuko da, horrek ekar ditzakeen ondorio juridikoekin.

OHARRA: Ikasle batek azkenean ezin badu egin mugikortasuna EHUri ez dagozkion arrazoiengatik, unibertsitateak ez ditu hartuko bere gain haren gastuak (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak eta abar).

Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta beraren kontra gorako errekurtoa aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari (EISBA) hilabeteko epean, berau jakinarazi/argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horrek ezertan eragotzi gabe beste edozein errekurto jartzea.

Gorako errekurtoa jarri denetik hiru hilabete igaro badira unibertsitateak erabakirik jakinarazi gabe, administrazioaren isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko da, eta orduan



administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan.

Leioa, 2025eko urriaren 30a

Gotzone Barandika Argoitia And.

Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordea